

**ba al dago
zure
intimitatea
baino gauza
pribatuagorik?**



Administrazio publikoek eta enpresa pribatuek betidanik erabili izan dituzte pertsonen datuak lan egin ahal izateko.

Informatikaren eta teknologiaren erabilerak ezinbestekoa egin dute zure intimatea eta datu horien erabilera egokia bermatzen duten legeak eta erakundeak sortzea.

ZURE DATU PERTSONALAK BABESTEN LAGUNTZEN DIZUGU



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

www.avpd.es
avpd@avpd.es

Tomas Zumarraga Dohatsuaren
kalea 71-3. solairua
01008 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945 016 230

zer dira zure datu pertsonalak?


Enpresek edo administrazioek erabiltzen dituzten zuri buruzko **informazioak** dira

Datu pertsonalen adibideak:

Zure izena eta abizenak, zure helbidea, lanbidea, zure argazkia, prestakuntza, diru-sarrerak eta abar.

Bereziki babestutako datuak:

Zure ideologia eta sinismenak, zure erlijioa, sindikatu afiliazioa, arraza, osasuna, bizitza sexuala eta arau-hauste penal eta administratiboak.



nola erabili behar dituzte zure datu pertsonalak?



Zure datuak erabiltzen dituzten administrazio eta enpresen **BETEBEHARRAK:**

Azaldu behar dizute **zertarako** erabiliko dituzten datuak

Zure adostasuna dute eskatu behar, ez badago baimena ematen duen **lege-araurik**

Datu zehatz eta egokiak bakarrik eskatu behar dizkizute, eta eskatutako helbururako

Bertako langileei **lanbide-sekretua** gordearazi

Datuen segurtasuna bermatzeko neurriak erabili behar dituzte



zeintzuk dira zure eskubideak?

Aldez aurreko informazioa

izatea zertarako behar dituzten jakiteko

Norberari buruz **zeintzuk datu dituzten jakin**

Datu okerrak edo osoak ez badira, **zuzentzeko eta indargabetzeko aukera**

Zenbait egoeratan tratamenduaren **aurka agertzea**



Era berean, eskubidea duzu:

Telefono gidetan ez agertzeko.

Nahi ez duzun publizitatea ez jasotzeko.

Gure web orrian www.avpd.es zure eskubideei buruzko informazio gehiago aurki dezakezu

Zure nortasunaren ezaugarriak neurtzen dituzten datuetan bakarrik oinarritutako **erabakiei aurka egitea** nabarmen eragiten badizute

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren babesa izatea zure eskubideak kontuan har daitezen

Bulegoaren Datuak Babesteko Erregistroa doan **kontsultatzeko aukera**

nola erabil ditzakezu?

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren bitartez

Datu pertsonalen babesa oinarrizko eskubidea da



Kontrol agintaritza independente bat gara.



Euskal administrazio publikoek datu pertsonalen erabileraren arloan legea betetzen dutela zaintzen dugu.



Pertsonak nahiz administrazioek datuen babesaren arloan eskatzen dizkiguten kontsultei eta txosten eskaerei erantzuten diegu.



Hiritarrak sentsibilizatzen ditugu eta erakunde publikoen zerbitzuan ari diren pertsonen jardute erak hobetzea sustatzen dugu.



Enpresa pribatuetan datuen erabilera kontrolatzeko:

*Erakunde eskuduna
Datuak Babesteko
Espainiako Bulegoa da*

*Guk zure eskaera
aurkez dezakegu*

zein legek babesten zaitu?


Europar Batasuneko Oinarritzko
Eskubideen Gutunak

Espainiako Konstituzioak

Datuak babesteari buruzko
15/1999 Lege Organikoak

Datu Pertsonaletarako Jabetza
Publikoko Fitxategiei eta Datuak
Babesteko Euskal Bulegoa
Sortzeari buruzko otsailaren
25eko 2/2004 Legeak

Legeek datu
pertsonalen
erabilera mugatzen
dute datuen
erabilera egokia
eta pertsonen
intimitatea
bermatzeko



Informatu zaitez, zure eskubidea da



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

www.avpd.es
avpd@avpd.es